vada. En todo caso se dará cumplimiento a la condición de distancia máxima prevista en el epígrafe 1 del artículo 2.1.1 de la Sección HS2 «Recogida y evacuación de residuos» del vigente Código Técnico de la Edificación.

D) Cuando el planeamiento urbanístico, o en el proyecto del edificio queden previstos en planta baja locales destinados a usos no lucrativos (equipamentales), podrán destinarse parcialmente a la implantación del recinto de depósito de los residuos urbanos de la finca, sin que la superficie ocupada a tal fin sea considerada como edificabilidad física computable.

4. Condiciones de accesibilidad de los locales.

A) El local destinado al depósito de los residuos urbanos de la finca cumplirá, en todo caso, las siguientes condiciones de accesibilidad:

— El recorrido entre el distribuidor del núcleo de comunicación vertical (ascensor o caja de escaleras) de cada una de las comunidades de propietarios a las que da servicio y el punto de acceso al local de residuos urbanos, no será superior a 15 m.

— Entre el local y el exterior del edificio, se dispondrá de un acceso de comunicación directa, e independiente de otros espacios de uso diferente, sean privativos, o comunes. En caso de que el acceso no sea directamente desde el exterior, el recorrido desde exterior al local no será superior a 15 m.

— El recorrido desde el local de residuos urbanos hasta el punto de recogida exterior no tendrá una anchura libre menor de 1,20 m, ni quedará interrumpido por escaleras. Así mismo, en dicho recorrido deberán cumplirse las condiciones de la normativa vigente sobre accesibilidad.

— Las puertas de cerramiento del recinto, o que deban interponerse en el citado recorrido, tendrán un sentido de apertura hacia el exterior del edificio y su hoja no será menor de 1 m de anchura. Las cerraduras de tales puertas quedarán «maestreadas» según las características de las llaves a utilizar por el Servicio Municipal de Recogida de Residuos Urbanos.

b) El Ayuntamiento, previo informe favorable de los Servicios Técnicos Municipales, podrá aceptar otras soluciones alternativas de accesibilidad a los locales, que no se ajusten estrictamente a lo estipulado en el presente epígrafe, siempre que quede plenamente garantizado que de la solución adoptada no se derivarán inconvenientes significativos para la correcta funcionalidad del sistema de recogida de residuos urbanos, ni se conculcarán los objetivos básicos asociados a dicho sistema, o la legislación técnica de general aplicación.

5. Condiciones constructivas y de servicio de los locales.

A) Las características constructivas y de servicio de los locales destinados al depósito y recogida de residuos urbanos cumplimentarán las instrucciones contenidas en el artículo 2.1.3 de la Sección HS-2 «Recogida y evacuación de residuos» del vigente Código Técnico de la Edificación.

B) En cualquier caso, se garantizarán en el local las debidas condiciones:

— De ventilación ambiental.

— De impermeabilización y facilidad de limpieza de suelos, paredes y techos y otros elementos constructivos (acabados, carpinterías, etc).

— De dotación de abastecimiento de agua (punto de toma y fregadero para la limpieza da cubos) y de red de saneamiento (sumidero sifónico y antimúridos).

— De instalación de iluminación artificial y de red eléctrica (punto de enchufe monofásico16 A, estanco IP-65).

— De Protección contra Incendios según apartado 2 de la Sección SI-1 «Seguridad en caso de incendio» del vigente Código Técnico de la Edificación.

C) Bestalde, ordenantza honetan arautzen den hondakinak utzi eta bertatik eramateko sistemarako beharrezkoak diren zintzilikarioak edo bestelako elementu eta tresneria jarri beharko dira hondakinetarako gelan.

6. Baldintza tekniko osagarriak.

Eraikinetan jarri behar diren hondakinetarako gelen proiektuarekin eta exekuzioarekin lotutako gai guztiei dagokienez indarrean dagoen Eraikuntzaren Kode teknikoak aurreikusten duena beteko da, artikulu honetan espresuki araututa ez badaude.

7. Artikulu honetan zehaztutakoak betetzen ote diren ikusteko egiaztapena.

Eraikinak eraikitzeko lizentzia eta lehen erabilerarako lizentziak emateko beharrezkoa izango da udaleko zerbitzu teknikoek aldez aurretik egiaztatzea ea eraikin horien sustatzaile publiko nahiz pribatuek ongi bete ote dituzten artikulu honetan ezarritako betebehar eta baldintza guztiak.

Egiaztapena egiteko, batetik, oinarrizko eta exekuzio egitasmoak aztertuko dira eta, bestetik, obrak bukatzen direnean lekuan bertan ikuskapena egingo da, eta dena txosten teknikoetan jasota utziko dute.

*21. artikulua. Garbiketa:*

1. Hondakinen gela garbitzeko ardura bizilagunen komunitateak izango du.

2. Hondakinen bilketarako erabili behar diren edukiontziak garbi eta txukun edukitzea zerbitzuaren erabiltzailearen ardura izango da.

*22. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak.*

Etxebizitza, merkataritza-gune, biltegi, azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria eta osasun-establezimenduen jabe edo erabiltzaile guztiek eta, oro har, zerbitzu honek eragiten dituen erabiltzaile edo onuradun guztiek:

A) Udal bilketa-zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute.

B) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere ordenantza honetan jasotzen dena.

C) Udalak eskatuta, hondakinak bota edo uzten dituen pertsona identifikatzeko obligazioa dute.

*23. artikulua. Erabilpen arauak.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak hondakin atal bakoitza ondo sailkatuta eta Udalak horretarako jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan atera beharko ditu.

2. Debekatuta dago hondakin likido zein urtzeko modukoak ateratzea.

3. Debekatuta dago hondakinak nonahi uztea. Zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta daude jarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.

4. Debekatuta dago bilketa lekuak hondatu edo desitxuratu dezakeen edozein ekintza egitea.

5. Debekatuta dago, halaber, etxean sortutako hondakin nahastuen poltsak kaleko koloretako paperontzi edo hondakin ontzietan uztea.

6. Kalean sortzen diren papertxo, zigarrokin, bilgarri eta horrelako beste hondakin txikiak, kaleetan horretarako jarritako paperontzietara sailkaturik bota behar dira bakoitza dagokion lekuan.

7. Debekatuta dago bide publikora martxan nahiz geldirik dauden ibilgailuetatik edozein motatako hondakinik botatzea.

C) Así mismo, el local quedará dotado de los colgadores, u otros elementos y equipos, debidamente instalados, que para su funcionamiento requiera el sistema de depósito y recogida de residuos urbanos regulado por la presente Ordenanza.

6. Condiciones técnicas complementarias.

En todas las materias, relacionadas con el proyecto y ejecución de los locales destinados al depósito y recogida de residuos urbanos a implantar en las edificaciones, y que no quedan explícitamente reguladas por el presente artículo, se atenderá a lo previsto al efecto por el vigente Código Técnico de la Edificación.

7. Verificación del cumplimiento de las determinaciones del presente artículo.

La concesión de las correspondientes licencias de construcción y de primera utilización de las edificaciones, conllevará la verificación previa por los Servicios Técnicos Municipales del correcto y completo cumplimiento por parte de los promotores, públicos, o privados, de las citadas edificaciones, de las obligaciones y condicionados establecidos en el presente artículo.

Tal verificación se llevará a cabo en el examen de los Proyectos Básicos y de Ejecución, y en las inspecciones a efectuar «in situ» con la terminación de las obras y se dejará constancia de la misma en los correspondientes informes técnicos que al efecto deban emitirse.

*Artículo 21. Limpieza.*

1. Será la comunidad de propietarios la responsable de la limpieza del local para residuos.

2. Será responsabilidad de los usuarios mantener en condiciones de limpieza los contenedores.

*Artículo 22. Derechos, obligaciones y responsabilidad de los usuarios.*

Todo propietario, usuario de una vivienda, establecimiento comercial, almacén, mercado, local de espectáculos, centro de enseñanza, industria, establecimiento sanitario, y en general, todo usuario afectado o beneficiado por este servicio tiene:

A) El derecho a utilizar el servicio de recogida municipal.

B) La obligación legal de cumplir la normativa legal aplicable en materia de residuos, y específicamente la contenida en la presente Ordenanza.

C) La obligación de, a requerimiento municipal, identificar a la persona que abandone o deposita los residuos.

*Artículo 23. Normas de uso.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los residuos domiciliarios segregados en cada una de las fracciones en el día, la hora, la forma y el lugar fijados por el Ayuntamiento.

2. Se prohíbe el depósito de residuos que contengan líquidos o susceptibles de licuarse.

3. Se prohíbe el abandono de residuos. Los usuarios están obligados a depositarlos con arreglo a los horarios y en los lugares y forma señalados.

4. Queda prohibida cualquier actuación que deteriore los puntos o zonas de recogida, funcional o estéticamente.

5. Se prohíbe, así mismo, depositar bolsas de residuos generados en el hogar en las papeleras de colores ubicadas en la vía pública.

6. Los residuos sólidos de pequeño volumen como papeles, colillas, envoltorios y similares, generados en la vía pública, deben de depositarse en las papeleras instaladas al efecto.

7. Se prohíbe verter en la vía pública cualquier clase de desperdicios desde los vehículos, ya estén parados o en marcha.

EK\CV GAO-I-2017-08718

8. Debekatuta dago tamaina handiko hondakinak kalean uztea (altzariak, etxetresna elektrikoak...). Bakarrik utz daitezke baldin eta haiek jasotzeko zerbitzu berezia eskatu eta dagokion udal bulegoak hura onartu badu. Kasu horietan, horretarako jarritako leku, egun eta orduan atera beharko dira hondakinak kalera.

*24. artikulua. Biohondakinen gaikako bilketa.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta daude biohondakinak Udalak adierazitako moduan eta ordutegian ateratzera.

2. Biohondakin moduan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 1.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

3. Biohondakina zuzenean udalak horretarako emandako edukiontzietan utzi beharko da. Biohondakina bildu eta hurrengo goizean edukiontziak zintzilikatzekotik jaso beharko dira.

4. Udalak Biohondakina poltsarik gabe ateratzea hobesten duen arren baimenduko du UNE-EN 13432 araua betetzen duten paperezko zorro zein Ordenantza honen II. eranskinean agertzen den zigilua dituzten poltsa konpostagarrietan ateratzea (2015eko apirilaren 29ko 2015/720 arteztaraua).

*25. artikulua. Paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa.*

1. Zerbitzu-erabiltzaileak behartuta daude papera eta kartoia Udalak adierazitako moduan eta ordutegian ateratzera.

2. Paper eta kartoi moduan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 2.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

*26. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta daude ontzi arinak Udalak adierazitako moduan eta ordutegian ateratzera.

2. Ontzi arin moduan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 3.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

3. Ontziak garbi aterako dira.

*27. artikulua. Beirazko ontzien gaikako bilketa.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta daude beirazko ontziak Udalak adierazitako moduan eta ordutegian ateratzera.

2. Beirazko ontziak bide publikoan horretarako dauden ontzietan utziko dira. Edukiontzi horietan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 4.a puntuan adierazten diren materialak utziko dira.

*28. artikulua. Errefus atalaren gaikako bilketa.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta daude errefus atala Udalak horretarako banatu dituen edukiontzi txiki grisetan ateratzera adierazitako egun eta ordutegian. Errefusa bildu eta hurrengo goizean edukiontzia zintzilikatzekotik jaso beharko dira.

2. Errefus moduan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 5.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

3. Pixoihal eta zapi higienikoak egunero atera ahal izango dira, betiere poltsa aparte batean, egun horretan tokatzen den hondakin atalarekin batera zintzilikatuz.

4. Modu berean, egunero etxeko animali gorotzak ere atera ahal izango dira, betiere poltsa aparte batean, egun horretan tokatzen den hondakin atalarekin batera zintzilikatuz. Errefusa uztea tokatzen den egunetan, guztia batera aterako da.

8. Se prohíbe el depósito de residuos voluminosos (muebles, enseres, electrodomésticos...) en la vía pública, salvo que se haya solicitado el servicio especial de recogida de los mismos y éste haya sido aceptado por la oficina municipal correspondiente; en cuyo caso, éstos deberán ser depositados en el lugar, día y hora acordados.

*Artículo 24. Recogida selectiva de biorresiduos.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los biorresiduos en la forma y los horarios que establezca el Ayuntamiento.

2. Se entregarán como biorresiduos únicamente los residuos señalados en el punto 1.a del anexo I de la presente Ordenanza.

3. El biorresiduo se depositará directamente en los contenedores entregados al efecto por el Ayuntamiento. Dichos contenedores deberán ser retirados de los colgadores a la mañana siguiente de la recogida.

4. Si bien el Ayuntamiento prefiere que el biorresiduo se deposite en los cubos sin bolsa, autorizará que se saque en bolsas de papel que cumplan la norma UNE-EN 13432 así como en bolsas compostables que lleven el sello que se señala en el anexo II de esta Ordenanza (Directiva 2015/720 de 29 de abril de 2015).

*Artículo 25. Recogida selectiva de papel y cartón.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar el papel y el cartón en la forma y los horarios que establezca el Ayuntamiento.

2. Se entregarán como papel y cartón únicamente los residuos señalados en el punto 2.a del Aaexo I de la presente Ordenanza.

*Artículo 26. Recogida selectiva de envases ligeros.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los envases ligeros en la forma y los horarios que establezca el Ayuntamiento.

2. Se entregarán como envases ligeros únicamente los residuos señalados en el punto 3.a del anexo I de la presente Ordenanza.

3. Los envases se entregarán limpios.

*Artículo 27. Recogida selectiva de envases de vidrio.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los envases de vidrio en la forma y en la hora establecidos por el Ayuntamiento.

2. Los envases de vidrio se depositarán en los contenedores ubicados al efecto en la vía pública. En estos contenedores únicamente se depositarán los materiales señalados en el punto 4.a del anexo I de la presente Ordenanza.

*Artículo 28. Recogida selectiva de la fracción rechazo.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar la fracción rechazo en el contenedor pequeño gris que para tal efecto se ha entregado a los mismos, en el día y en la hora establecidos por el Ayuntamiento. Dichos contenedores deberán ser retirados de los colgadores a la mañana siguiente de la recogida.

2. Se entregarán como fracción rechazo únicamente los residuos señalados en el punto 5.a del anexo I de la presente Ordenanza.

3. Los pañales y paños higiénicos podrán depositarse todos los días de la semana, siempre en bolsa aparte, a la vez que la fracción correspondiente del día.

4. Asimismo los excrementos de mascotas podrán depositarse todos los días de la semana, siempre en bolsa aparte, a la vez que la fracción correspondiente del día. Los días de recogida de la fracción rechazo se entregarán junto con ésta.

EK\CV GAO-I-2017-08718

*29. artikulua. Ekarpen guneak.*

Hondakinak atez ate bildu ezin daitekeen Landalurrean kokaturik dauden baserri eta etxeetako hondakinak biltzeko ekarpen guneak eraiki dira udalerriko hainbat puntuetan (Martindegi auzoan, Ereñotsu, Osinaga bailaran, Elizatxo auzoan eta Jauregi bailaran).

Ekarpen guen horietan hondakin mota bakoitza uzteko hainbat edukiontziz hornitu dira eta gune horiek erabiltzeko baimena dutenak hondakinak behar bezala sailkatuz hondakinak, atal bakoitza dagokion edukiontzian utzi beharko ditu, beti ere ordenantza honen 23. artikuluan dioena errespetatuz. Gune horietan ere Udalak Biohondakina poltsarik gabe uztea hobesten duen arren baimenduko du UNE-EN 13432 araua betetzen duten paperezko zorro zein Ordenanza honen II. eranskinean agertzen den zigilua dituzten poltsa konpostagarrietan ateratzea (2015eko apirilaren 29ko 2015/720 arteztaraua).

II KAPITULUA. ETXEBIZITZETAN SORTZEN DIREN HONDAKIN BEREZIEN BILKETA

A. ATALA. Altzari, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa

*30. artikulua.*

1. Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak Garbigunera eraman eta han utzi behar dira.

2. Zerbitzu hori doakoa izango da, beti ere dagozkion kantitate eta mugak errespetatuz.

31. art.:

1. Aurrekoaz gain, Udalak mota horretako altzariak biltzeko atez ateko zerbitzu berezia antolatua du. Hala, zerbitzu horretaz baliatu nahi duenak Udaletxera deitu (tel.: 943.337.000) eta zerbitzuaren arduradunari ondorengo informazioa eman:

— Izen, abizen, helbidea eta kontakturako telefonoa.

— Zehaztea zer utzi nahi den eta non utziko den.

Zerbitzuaren erabiltzaileak Udaletxeko arduradunak adierazitako egun eta orduan utzi beharko ditu hondakinak adostutako lekuan. Ez da telefonoz hitzartutakoa baino gauza gehiago utziko. Bestela arau urratze bezala hartuko da.

*32. artikulua. Zerbitzu horren bidez bilduko direnak.*

Zerbitzu horrek altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak bilduko ditu, baldin eta haiek maneiatzeko baliabide mekanikorik erabili behar ez bada, hau da, garabi, polea eta abar behar ez badira haiek mugitzeko. Esaterako, zerbitzuaren esku utzi daitezkeen hondakinen artean daude:

— Edozein motatako altzariak: Sofa, armairua, aulkia, koltxoia, somierra eta antzekoak...

— Elektrodomestikoak: labadora, frigorifikoa, mikrouhina, telebista, ordenagailua, plantxa, batidora eta abar...

— Ordenagailua, inpresora...

— Alfonbra, lanpara, koadroa...

*33. artikulua. Bilketa zerbitzu horretan jasoko ez diren hondakinen artean daude:*

— Obra hondakinak.

— Zokaloak, egurrak, ateak, leihoak eta abarrak.

— Komunak, lababoak, bideak, dutxako manparak, fregaderak eta antzekoak...

*Artículo 29. Áreas de aportación.*

Con el fin de recoger los residuos generados en casas y caseríos ubicados en zonas rurales en las que éstos no pueden ser recogidos mediante el sistema puerta a puerta, se han habilitado Áreas de Aportación en diferentes puntos del municipio (Martindegi auzoa, Ereñotsu, Osinaga bailara, Elizatxo auzoa y Jauregi bailara).

Las mencionadas áreas de aportación están provistas de contenedores destinados a cada tipo de residuo, y los usuarios autorizados, una vez clasificados debidamente los residuos, deberán depositar cada fracción en el contenedor correspondiente, respetando en todo momento lo establecido en el artículo 23 de la presente Ordenanza. En dichas áreas así mismo si bien el Ayuntamiento prefiere que el biorresiduo se deposite en los cubos sin bolsa, autorizará que se saque en bolsas de papel que cumplan la norma UNE-EN 13432 así como en bolsas compostables que lleven el sello que se señala en el anexo II de esta Ordenanza (Directiva 2015/720 de 29 de abril de 2015).

CAPÍTULO II. SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS ESPECIALES GENERADOS EN LOS HOGARES

SECCIÓN A. De la recogida de muebles, enseres domésticos y trastos viejos

*Artículo 30.*

1. Los muebles, enseres domésticos y trastos viejos se llevarán al punto limpio o Garbigune.

2. Este servicio será gratuito en los casos en los que se respeten los volúmenes y límites correspondientes.

*Artículo 31:*

1. Además, el Ayuntamiento establecerá un servicio especial de recogida de voluminosos. De manera que, las personas que quieran utilizar dicho servicio deberán llamar al número de teléfono municipal 943.337.000, y aportar al personal responsable del servicio la siguiente información:

— Nombre, apellidos, dirección y teléfono de contacto.

— Indicar el tipo de residuo que se quiere entregar y el lugar en el que se quiere depositar.

El usuario deberá depositar los residuos en el lugar acordado en el día y hora señalados al efecto por el personal responsable municipal. No se depositarán más residuos que los convenidos por teléfono. El incumplimiento de esta prohibición será constitutivo de infracción.

*Artículo 32. Residuos objeto de recogida.*

El servicio incluirá la recogida de muebles, enseres domésticos y trastos viejos, excepto aquellos para cuyo manejo sea necesario el empleo de medios mecánicos tales como grúas, poleas, etc. Por ejemplo, podrán ponerse a disposición del servicio, entre otros, los siguientes residuos:

— Muebles de todo tipo: Sofás, armarios, sillas, colchones, somieres y similares...

— Electrodomésticos: lavadoras, frigoríficos, hornos microondas, televisores, ordenadores, planchas, batidoras, etc.

— Ordenadores, impresoras...

— Alfombras, lámparas, cuadros...

*Artículo 33. Residuos que no serán objeto de recogida por parte de este servicio:*

— Escombros.

— Zócalos, madera, puertas, ventanas, etc.

— Inodoros, lavabos, bidés, mamparas de ducha, fregaderas y similares...

EK\CV GAO-I-2017-08718

— Butano bonbonak, kanping gasa eta haien gisakoak...

— Kristalak, txatarra, burniak...

— Kimaketak...

— Pneumatikoak.

— Jostailuak.

— Hondakin arriskutsuak.

B. ATALA. Hondakin arriskutsuen kudeaketa

*34. artikulua. Sukaldeko olio erabilia.*

Herrian zehar sukaldeko olio erabilia biltzeko hainbat makina jarri dira. Herritarrak han utzi behar du mota horretako olioa. Olioa jasotzeko erabili behar den potea da makinak berak ematen duena da.

*35. artikulua. artikulua. Etxeetan sortzen diren hainbat hondakinen kudeaketa.*

Herrian zehar 7 hondakin mota ezberdin, modu sailkatuan, biltzen dituen hainbat makina jarri dira. Horietako bakoitzean, honako hondakinak utzi daitezke (bakoitza dagokion arteka edo zirrikitura botaz):

— CD/DVDak.

— Inprimagailuko kartutxoak.

— RAEE-ak: (aparatua funtzionatzeko pilak edo entxufea behar dituzten tresnak dira: bizarra kentzeko makina eta abarrak).

— Eskuko telefonoak, beren bateria eta kargagailuak.

— Pila arruntak eta botoi gisakoak.

— Bonbila eta halogenoak.

— Kontsumo txikiko bonbilak.

Mota horretako hondakinak garbigunera ere eraman daitezke.

*36. artikulua. Etxeetan sortzen diren beste hondakin arriskutsuak.*

Etxeetan sortzen diren beste hondakin arriskutsuak Garbigunera eraman beharko dira eta han utzi, hango langileak adierazten duten modu eta lekuan.

Atal horretan sartzen dira: lanpara fluoreszenteak zein bestelakoak, mugikorren bateriak zein mugikorrak berak, pintura, disolbatzaile eta abarren poteak eta abar luze bat.

*37. artikulua. Abandonatutako ibilgailuak.*

1. Debekatuta dago ibilgailuak abandonatzea eremu publiko zein pribatuetan.

2. Ibilgailuaren jabearen ardura da baimendutako kudeatzaile baten eskuetan uztea baztertu nahi duen ibilgailua.

3.-ibilgailuaren jabeak ez badu betetzen aurrekoa, Hernaniko Udalak, dagokion zehapena ezartzeaz gain, utzitako ibilgailua baimendutako kudeatzaile baten eskuetan uzteko tramitazioa egin dezake, eta horren kostua ibilgailuaren jabeari ordainarazi.

C. ATALA. Oinetako eta oihalen kudeaketa

*38. artikulua. Oinetako eta oihalak.*

Oinetakoak eta oihalak horretarako kalean ezarrita dauden ontzien barruan eta poltsa itxietan utzi behar dira.

Garbigunera ere eraman daitezke mota horietako hondakinak.

— Bombonas de butano, camping gas y similares...

— Cristales, chatarra, hierros...

— Restos de podas...

— Neumáticos.

— Juguetes.

— Residuos peligrosos.

SECCIÓN B. Gestión de residuos peligrosos

*Artículo 34. Aceite doméstico.*

En diferentes puntos del municipio se han instalado varias máquinas para la recogida de aceite, que es donde se depositarán los botes de aceite usado. Los botes que se utilizarán para recoger el aceite usado serán los que la propia máquina proporciona.

*Artículo 35. Gestión de algunos residuos domiciliarios peligrosos.*

En diferentes puntos del municipio se han instalado varias máquinas para la recogida selectiva de 7 tipos diferentes de residuos. En cada una de las mencionadas máquinas, se podrán depositar los siguientes residuos (introduciendo cada residuo en la correspondiente ranura):

— CDs/DVDs.

— Cartuchos de impresoras.

— RAEEs: (aparatos que necesitan pilas o enchufe para su funcionamiento: máquinas de afeitar, etc.).

— Teléfonos móviles, sus baterías y cargadores.

— Pilas comunes y pilas botón.

— Bombillas y halógenas.

— Bombillas de bajo consumo.

Los residuos de este tipo se pueden llevar asimismo al Garbigune.

*Artículo 36. Resto de residuos domiciliarios peligrosos.*

El resto de residuos domiciliarios peligrosos se llevarán al Garbigune y se depositarán en el lugar y de la forma que indique el personal del mismo.

Se incluyen en este apartado: lámparas fluorescentes y de otro tipo, baterías de móviles y móviles, botes de pintura, disolvente, y un largo etc.

*Artículo 37. Vehículos abandonados.*

1. Queda prohibido el abandono de vehículos, tanto en vías públicas como en privadas.

2. Será responsabilidad del titular del vehículo el entregar al gestor autorizado el vehículo que desea depositar.

3. Si el titular del vehículo incumple lo anterior, el Ayuntamiento de Hernani, además de imponer la correspondiente sanción, podrá proceder a la tramitación de entrega del vehículo a gestor autorizado, debiendo el titular del vehículo abandonado abonar los costes de recogida.

SECCIÓN C. Gestión de calzado y tejidos

*Artículo 38. Calzado y tejidos.*

El calzado y los tejidos se depositarán en los contenedores habilitados para tal fin en la vía pública, siempre en bolsas cerradas.

Los residuos de este tipo se pueden llevar asimismo al Garbigune.

EK\CV GAO-I-2017-08718

D. ATALA. Obra hondakinak

*39. artikulua.*

1. Erabat debekatuta dago udalerri honetako kale, lur edo bide publiko zein pribatuetan edozein motatako obra hondakinak uztea.

2. Garbiguneko araudiaren arabera zehazten diren mugak errespetatuz, obra hondakinak, Garbigunera eraman beharko dira.

3. Orokorrean, obra hondakinen kudeaketa arau hauei jarraiki egin behar da: 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

*40. artikulua.*

1. Obra hondakin edo lurren garraioa behar bezalako baldintzetan egin beharko da, saihestuz beti ere, bide publikoa zikintzea. Horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

2. Bide publikoa zikinduz gero garbitu eta lehenera itzuli beharko du erantzuleak.

E. ATALA. Garbigune zerbitzua

*41. artikulua. Garbigunea.*

a) Onartuko diren materialak hauek dira:

1. Eraikuntza-hondakinak: obra txikien hondakinak, konketak, komunak, azulejoak, ontziteria, etab.

2. Tamaina handiko tresnak: koltxoiak, somierrak, altzariak, pertsianak, etab.

3. Txatarra: erradiadoreak, bizikletak, harraskak, metalezko egiturak, etab.

4. Plastikoak: jostailuak, ontziak, etab.

5. Lerro zuria: hozkailuak, garbigailuak, ontzi-garbigailuak, mikrouhinen labeak, etab.

6. Pneumatikoak.

7. Kimaketa-hondarrak, egurra.

8. Ehunak, oinetakoak.

9. Papera eta kartoia.

10. Beirazko ontziak.

11. Lerro marroia: telebistak, bideoak, DVD erreproduzitzaileak, musika-ekipoak, ordenagailuak, mugikorrak, etab.

12. Metagailuak, pilak eta bateriak.

13. Tinta-kartutxoak, tonerrak.

14. Bonbillak, fluoreszenteak, behe-kontsumoko bonbillak.

15. Sukaldeko landare-olioak.

16. Motorraren olio mineralak, disolbatzaileak, pinturak, merkurio-termometroak.

17. Kasete-zintak, bideo-zintak, CDak.

b) Garbiguneak ez ditu materia hauek onartzen:

— Hartzi daitekeen atal organikoa.

— Sendagaiak: farmazietan entregatu beharko dira.

— Xiringa erabiliak: farmazietan entregatu beharko dira.

— Industria-hondakinak: sortzaileak kudeatzaile baimenduen bidez kudeatu beharko ditu.

— Zabor nahastua jada bilduko ez den atala da.

SECCIÓN D. Escombros

*Artículo 39.*

1. Queda terminantemente prohibido el depósito en las calles, terrenos o vías públicas y privadas de este municipio de cualquier tipo de escombro de obra.

2. Los escombros, respetando los límites establecidos según la ordenanza del Garbigune, se llevarán al Garbigune.

3. Con carácter general, la gestión de residuos de obra se efectuará de acuerdo con el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición y el Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

*Artículo 40.*

1. El transporte de escombros y tierras se hará en las debidas condiciones evitando el vertido de su contenido y adoptando las precauciones necesarias para impedir que se ensucie la vía pública.

2. En caso de ensuciarse la vía pública se restablecerá a su estado original por parte del responsable.

SECCIÓN E. Servicio de garbigune

*Artículo 41. Garbigune.*

a) Materiales admitidos:

1. Escombros: escombros de obras menores, lavabos, inodoros, azulejos, vajilla, etc.

2. Enseres de gran tamaño: colchones, somieres, muebles, persianas, etc.

3. Chatarra: radiadores, bicicletas, fregaderos, estructuras metálicas, etc.

4. Plásticos: juguetes, envases, etc.

5. Línea blanca: frigoríficos, lavavajillas, lavadoras, hornos microondas, etc.

6. Neumáticos.

7. Restos de podas, madera.

8. Tejidos, calzado.

9. Papel y cartón.

10. Envases de vidrio.

11. Línea marrón: televisores, vídeos, reproductores de DVD, equipos de música, ordenadores, móviles, etc.

12. Acumuladores, pilas y baterías.

13. Cartuchos de tinta, toner.

14. Bombillas, fluorescentes, bombillas de bajo consumo.

15. Aceite vegetal doméstico.

16. Aceites minerales de motor, disolventes, pinturas, termómetros de mercurio.

17. Cintas de casete y vídeo, CDs.

b) Materias no admitidas en el Garbigune:

— Fracción orgánica que pueda fermentar.

— Medicinas: deberán entregarse en las farmacias.

— Jeringuillas usadas: deberán entregarse en las farmacias.

— Residuos industriales: el generador deberá gestionarlos a través de gestores autorizados.

— Basura mezclada, fracción que ya no se recogerá.

EK\CV GAO-I-2017-08718

III. KAPITULUA. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

*42. artikulua.*

1. Merkataritza zein ostalaritzako arduradunak, jarduera berri bat martxan jarri baino lehen Udaletxean dagoen hondakinen bulegotik pasatu eta hondakinen bilketa zerbitzuan alta eman beharko dute. Horrekin batera, bulego horretan bertan, hondakinen kudeaketarako beharko dituzten edukiontzien eskaera ere egin beharko dute.

2. Edukiontzi horiek establezimenduaren barruan gorde beharko dira beti. Ezingo dira egunean zehar establezimenduaren kanpoaldean eduki. Egunari dagokion hondakin frakzioa atera beharko da hondakinen bulegoak zehazten duen ordutegia errespetatuz.

*43. artikulua. Frakzio organikoaren gaikako bilketa.*

1. Frakzio organikoaren gaikako bilketan, bakar-bakarrik, Ordenantza honen I eranskineko 1.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

2. Frakzio organikoa zuzenean udalak horretarako emandako edukiontzietan utzi beharko da.

3. Udalak organikoa poltsarik gabe ateratzea baimentzen duen arren gomendatuko du Ordenantza honen II. eranskinean agertzen den zigilua dituzten poltsa konpostagarrietan ateratzea; beti ere ordea, poltsa konpostagarrietan edukiontziaren barruan.

4. Edozein modutara, frakzio organikoa kudeatzeko edukiontzia beti txukun eta garbi mantenduko ditu erabiltzaileak.

5. Edukiontzia, dagokion egunean eta ordutegian utzi behar da establezimenduko atearen ondoan eta bilketa ondoren jaso eta barruan gorde.

*44. artikulua. Paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa.*

1. Papera eta kartoia sortzen dituzten establezimenduek Udalak horretarako emandako edukiontzietan utzi beharko dituzte, Udalak horretarako ezarritako egun eta ordutegia errespetatuz.

2. Paper eta kartoi moduan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 2.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

*45. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa.*

1. Ontzi arinak sortzen dituzten establezimenduek Udalak horretarako emandako edukiontzietan utzi beharko dituzte, Udalak horretarako ezarritako egun eta ordutegia errespetatuz.

2. Edukiontzien barruan poltsa jartzekotan, hura derrigorrez transparentea izango da. Ezingo dira poltsa opakoak erabili.

3. Ontzi arin moduan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 3.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

4. Ontziak garbi aterako dira.

5. Edozein modutara, ontzi arinak kudeatzeko edukiontzia beti txukun eta garbi mantenduko du erabiltzaileak.

*46. artikulua. Beirazko ontzien bilketa.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek beirazko ontziak bide publikoan horretarako dauden ontzietan utziko dituzte. Edukiontzi horietan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 4.a puntuan adierazten diren materialak utziko dira.

*47. artikulua. Errefusaren bilketa.*

1. Errefusa sortzen dituzten establezimenduek errefus atala Udalak horretarako emango dien edukiontzietan atera beharko dituzte, horretarako adierazitako egun eta ordua errespetatuz.

CAPÍTULO III. COMERCIO Y HOSTELERÍA

*Artículo 42.*

1. Las personas responsables de comercios y hostelería, previamente a la puesta en marcha de una nueva actividad, deberán acudir a la oficina municipal de residuos y darse de alta en el servicio de recogida de residuos. Deberán asimismo solicitar en esa misma oficina los contenedores necesarios para la gestión de residuos.

2. Dichos contenedores deberán guardarse siempre en el interior del establecimiento y no podrán permanecer en el exterior durante el día. La fracción correspondiente a cada día deberá depositarse respetando el horario establecido por la oficina de residuos.

*Artículo 43. Recogida selectiva de la fracción orgánica.*

1. Se entregarán como fracción orgánica únicamente los residuos señalados en el punto 1.a del anexo I de la presente Ordenanza.

2. La fracción orgánica se depositará directamente en los contenedores entregados al efecto por el Ayuntamiento.

3. Si bien el Ayuntamiento autoriza que la fracción orgánica se deposite en los cubos sin bolsa, recomendará que se saque en bolsas de plástico compostables que lleven el sello que se señala en el anexo II de esta Ordenanza, siempre y cuando se depositen en el interior del contenedor.

4. En cualquier caso, el usuario deberá mantener siempre limpio el contenedor para la gestión de la fracción orgánica.

5. El contenedor deberá depositarse junto a la puerta del establecimiento en el día y hora correspondientes y deberá guardarse en su interior una vez efectuada la recogida.

*Artículo 44. Recogida selectiva de papel y cartón.*

1. Los establecimientos generadores de papel y cartón están obligados a depositar esta fracción en los contenedores entregados al efecto por el Ayuntamiento, respetando el día y hora establecidos al efecto por el Ayuntamiento.

2. Se entregarán como papel y cartón únicamente los residuos señalados en el punto 2.a del anexo I de la presente Ordenanza.

*Artículo 45. Recogida selectiva de envases ligeros.*

1. Los establecimientos generadores de envases ligeros están obligados a depositarlos en los contenedores entregados al efecto por el Ayuntamiento, respetando el día y hora establecidos al efecto por el Ayuntamiento.

2. En el caso de colocar bolsas dentro del contenedor, éstas deberán ser transparentes, no pudiendo utilizarse bolsas opacas.

3. Se entregarán como envases ligeros únicamente los residuos señalados en el punto 3.a del anexo I de la presente Ordenanza.

4. Los envases se entregarán limpios.

5. En cualquier caso, el usuario deberá mantener siempre limpio el contenedor para la gestión de la fracción de envases ligeros.

*Artículo 46. Recogida selectiva de envases de vidrio.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los envases de vidrio en los contenedores ubicados al efecto en la vía pública. En estos contenedores únicamente se depositarán los materiales señalados en el punto 4.a del anexo I de la presente Ordenanza.

*Artículo 47. Recogida de la fracción rechazo.*

1. Los establecimientos generadores de rechazo están obligados a depositar la fracción rechazo en los contenedores entregados al efecto por el Ayuntamiento, respetando el día y hora establecidos al efecto.

EK\CV GAO-I-2017-08718

2. Poltsa erabiltzekotan beti transparentea. Ezingo da poltsa opakorik atera, erabat debekatuta daude.

3. Poltsa beti kuboan sartuta atera behar da.

4. Errefus moduan bakar-bakarrik Ordenantza honen I. eranskineko 5.a puntuan adierazten diren hondakinak aterako dira.

*48. artikulua. Arrandegi eta harategietakoak berezkoak diren hondakinak.*

Arrandegi eta harategi jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinak giza kontsumorako ez diren animalia jatorriko azpiproduktuak dira. Udalaz gaineko arautegiak erregulatzen du haien bilketa, zehazki, uztailaren 5eko 139/2005 Dekretuak (Sandach legea).

Harategiek eta arrandegiek guztiz debekatuta dute beren hondakinak herriko hondakinekin nahastea. Ez dira herri hondakintzat hartzen eta enpresa baimendunen esku utzi behar da.

*49. artikulua. Porespana.*

Merkatari eta ostalariek, jardueraren ondorioz sortzen duten porespanezko babeskiak edo/eta plastikozko bilgarriak kudeatzaile propioekin kudeatu beharko dituzte eta, Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

*50. artikulua. Ostalaritzan sortzen diren Olio hondakinak.*

Ostalariek, jardueraren ondorioz sortzen duten olio erabilia kudeatzaile gaitu propioekin kudeatu beharko dituzte eta Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

IV. KAPITULUA. INDUSTRIA, TAILER ETA GAINERAKO JARDUERA EKONOMIKOETAKO BILKETA

A. ATALA. Derrigorrez hondakinak jatorrian bereiztea eta bilketa zerbitzua

*51. artikulua. Hondakinak bereiztuta atera behar zaizkio bilketa zerbitzuari.*

Etxeko hondakintzat hartuko dira zerbitzu edo industrietan sortu eta aurrekoekin pareka daitezkeen hondakinak; hau da, etxebizitzetan, merkataritzan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutakoak bezalakoak badira.

Hondakinak nahita ez bereizturik utzi behar zaizkio bilketa zerbitzuari. Hondakin horiek dira Udalak ezarriko duen bilketa zerbitzuak bakarrik jasoko dituenak:

1. Biohondakinak, lorategi edo kimaketetako hondakinak izan ezik.

2. Ontzi arinak: horien artean sartzen dira plastikozko ontziak, metalezkoak eta brick motako ontziak, beti ere etxeetan sortutakoen asimilagarriak izanik.

3. Paperezko eta kartoizko ontziak eta paperezko nahiz kartoizko hondakinak.

4. Beirazko ontziak: Beirazko botila, pote eta flaskoak. Multzo horren barruan gaur egun beira gaika biltzeko bide publikoan dauden edukiontzietan onartutako beira-ontzien mota guztiak sartzen dira.

5. Tamaina handiko tresnak: Izaerarengatik onargarriak diren hondakinak, baina, aldi berean, bolumenari edo pisuari erreparatuz, ohiko bilketa-zerbitzuarekin kudeatu ezin direnak: altzariak eta abar.

6. Birzikla, berrerabil edo balio eman ezin daitekeen izaeraz organikoak diren hondakinak (Gipuzkoako Hondakinen Par-

2. En el caso de utilizar bolsas, éstas deberán ser siempre transparentes, estando terminantemente prohibida la utilización de bolsas opacas.

3. La bolsa deberá depositarse siempre dentro del cubo.

